~~Entzule maiteak~~ gudu solas (1808 - 1814)

Badu orai ehun eta berrogoita hamar urte pasaturik ez dela izan gerlarik gure eremuetan. ~~[illegible] Gudukak egiten direlarik, beti izaten ditazte sekulako [illegible] eta lekuko jendek gudaren gatik zer nahi sofrikario pairatzen zuzten ez bakarrik, etsaien partetik baizik frantses tropen partetik.~~

~~[illegible]~~ Napoleon lehenaren denboran zen – Frantziako emperadoreak igorri zituen frantses tropak ~~[illegible]~~ Espaniaset, hango tronuan jarrarazteko Joseph bere anaia.

Guduka hasi zen Madrilen, 1808ko maiatzaren bian. Egun hartan (~~dos de mayo [illegible] españolek~~) Madrilgo populua altxatu zen frantsesen kontra eta hasi zen Españolek deitzen duten Guerra de Independencia. Zombeit eskualdun Madrilen ziren ~~frantses tropekin eta~~ Murat printzisen guardian eta, heietarik batek, pertsularia dudarik gabe, utzi dauku kantu bat. Berak dio hamabijaren pertsuan :

~~Dio kantu honek~~ :

~~Mila zortzi ehun eta zortzigarrenean~~

Kanta honen emailea mothiko gaztea
Lapurtarra eta mendiko umea
Bertso horen emaiteko izan du gutizia
Ikusi duenian komoditatia.

Beraz, denbora puxka bat harturik kundatzen dauzku hango kasarlak :

Mila zortzi ehun eta zortzigarrenean
Soldado sartu ginen oi ! enozentzian,
Zerbitzatu behar ginela printzisaren guardian ;
Egia ere badugu behartu gireniam –

Arribatu ginenian Madrilleko hirian
Begitarte egitia franko izaten ginian
Nafartarrak ginela erraiten zaukuteian
Heien alde izanen ginela behartzen zirenian

Maratzeko hilaren bigarrenian
Errebolta izan dugu Madrilgo hirian
Hiritikan kasatu nahi ginituzkeian.
Ederki trompaturik bazauden orolian.

Bederatzi ehun ginen kasernatik partitu
Bi plazetara ginituzken errepartitu
Españolen kontra harmetan paratu
Bertarat jinak orok baikintuen garbitu.

Xapel gorriak ginenian athera plazara
Burla egiten hasi zauzkigun behala
Usten zuten araua zezenak ginela
Gure koreatzeko makanasekila.

Makanasak iharraus ta gibelko aldian jo
oihu egiten zaukuten, tira, tira karajo.
Tiratu giniotzaten dozena bat tiro
Un zirenak joan ziren erran gabe adio

Utz ditzagun Madrilgo jende gaixoak eta gure eskualdun partikulara. Gerla hasi zen Espainia guzian. Madrilen etsemplua harturik Zaragozan ere altxatu ~~ziren~~ eta gure kontra egin zuten gerlaren gatik sortu zuten Zaragoztarrek fama haundi bat.

La virgen del Pilar
No quiere ser francesa
Quiere ser capitana.
De la tropa aragonesa

dió español kopla batek.

Naparroan ere Mina, ixtudiant~~ak~~ ~~bere osabarekin~~ Ezpoz y Mina. bere osabarekin napartar gudukariak mendietan gorderik atakatzen zituzten Espainiarat joaiten ziren tropa eta karroak. Orolian hasi zen eskualdunen artean guduka izigarri bat: eskualdunen artean, diot, Harispe jenerala zelakotz alde batetik eta Mina osaba ilobak bertzaldetik.

Harispen berriak badazkigu eskualdun pertsulari bati esker.

Napoleon Frantzian enperadoria
Europan egin duzu anhitz balentia
Harispe jenerala eskualdun garbia
Haren plazerra baita gerlara joaitia.

Harispe jenerala jin da Españatik
Zaragozatik edo Balentzia ondotik
Kolpatuia dagoela jaun hura badakit
Bizia galdu nahi du Napoleonegatik

Anhitz atphatuia da aurthen Zaragoza
Guziak mintzo dira herri haren kontra
Harispe jenerala trankil han egon da
Brigantendako diro eztela lotsa.

Kartiel bat deitzen da Frantzian Baigorri
Etxaotze hortan duzu sujet handi hori
Jende noble haientzat hori zen komberi
Harispe jenerala Jainkoak igorri.

Anhitz barreatu da Harispe zure fama
Kolpatzen zinuztela bainan bethi senda
Zuk egin balentiak ezdaitezke konda
Zuk egin balentiak ezdaitezke konda.

Kolpatuia zirela munduiak badaki
Jainkoak nahi eta halere arinki
Hiltzeko danu zira behar zira bizi
Ehun urthez zure madamareki.

Harispen Pendorak kantatu zituen eskualdun pertsulariak bainan Napartarr guduKariek etzuten amor emaiten. 1811tik eta 1813a artio, bi urtez, hiru aldiz bederen Napartarrak sartu ziren Frantzian Pausuko muga pasaturik.

1811ko ekainaren 6an gorzeko hiruak eta erdietan mila guduKari

eta 50 zaldunek pasatu zuten Pausuko zubia eta joan Hendaiarat. Han aduanan sartu ziren eta hartu zuten diru eta paper. Gero Urruñarat jo zuten eta Zokorat bainan Frantses tropek arrastatu zituzten eta ihesi joan ziren berriz Españarat.

1812ko urriaren 8an bezala porta ehun Napartar, Cholin lote hauta buru, sartzen ziren Sarako plazan. Hango herriko etxian hartu zituzten "garde nationale" delakoaren armak eta atxeman zuten dirua. Ebatsi zuten etxe batzuetan eta eraman zituzten aduanako diru zaina, hiru guardekin.

1813ko otsailaren 16an berriz agertu ziren Napartarak Urruñan eta noiz nahi joan jin bat egiten zuten. Mugako jendeak etziren deskantsuan bizi, napartarren guduldi baten beldurrez.

Etziren guduldi horiek gauza ttipiak baizik. Gerla beltza hasi beharra zen urte hartan. Frantsesek galdurik Vitoriako bataila, tropak ihesi joan ziren Españatik. 1813ko urrian Welington angles eta españolekin arribatu zen Bidasoa ibaiaren hegietarat eta San Marcial eta Verako gudukak irabazirik sartu zen Lapurdin.

Urriaren 7an pasatu zuten ibaia eta emeki, emeki, herri guzietan gudukaturik angles eta español armadak bereganatu zituzten Urruña, Azkaine, Sara, Ainhoa, Ezpeleta, Zuraide Sempere, Bidarte, Arrauntze, Arbona, Arrangoitze. Hazilaren azken egunetan Lapurdiko herri guziak Welington-en meneko ziren.

Ordian hasi ziren egiazko sofrikarioak. Ez bakarrik angles eta españolen partetik bainan frantses tropen partetik pairatu zuten eskualdunek. Batzu ihesi, bertziak irabazle, denak ohoin edo arrobatzale. Hor ditugu lekuko Hourmat jaunak, Baionako lyceeko erakasle jakintsunak agertarazi dituen berriak Bulletin du Musee Basque-eko agerkarian. Hiru ehun frantses soldadok erhautsi zuten Kamboko kartier bat. Berdin izan zen Itsasun, Haltsun, Ezpeletan, Saran, Larresoron.

Baigorritik, Senpertik, Azkainetik, Saratik, auzapezek idazten zuten Baionako suprefetari, frantses soldadoek egiten zituzten ohoinkeriak aitortzeko.

Hor dugu ere lekuko, Martin, Bidarteko pertsulari bat. ~~Bertsuetan~~ Erraiten dauzku, pertsu hunkigarri batzuetan zer izan ziren Eskualdunen pairamenak.

Mila zortzi ehun eta hamahirugarrena
Xefek eman zutena, Frantzian ordena
Tropak heldu zirela, Frantzian barnera
Ihes joaitea zela gure hoberena.

Partitu gineniean zoin gure herritik
Haur batzu besoetan, bertzeak ondotik
Nigar egiten zuten gaixoek gogotik
Inozentek sofritzia falta horren gatik!

Arribatu gineniean leku arrotzetan
Pietate gabeko Kaskoin arrotzetan
Gabak kampoan pasatuz neguko hotzetan
Biziaz etsiturik hogoi ta bortzetan.

Jende zorrotzak dira guretzat Kaskoinak
Eskualdun gaixoentzat ez hain kasta onak
Gure gostuz beaiek jan tuzte gauz onak
Oiloak egosiz eta erreik gapoinak.

Soldadoak gibelat heldu erretretan
Arrobatzen zituzten jendeak bidetan
Gintuienak ken eta zoazin lorietan
Saindu onik bide da tropa horietan.

Kantu hauien emaile Martin Bidarteko
Niri ere joan dautet zonbait biarteko
Borondate izan dut hauien emateko
Arrazoina bainuen egia erraiteko.

—

6

1814 ean akabatu zen gerla hori. Berriz, kurraia handi batekin, lotu ziren lanari eskualdunak gerlak uzten dituen zauriak sendotu nahiz. Iphar aldeko Eskual herrian ez zen gehiago gerlarik izanen, Hego aldeko Eskual Herrian aldiz, ~~...~~ XIX garren mendean jasan ertuzten bi gerla eta beztze bat XX garren mendean, 1936 an. Agian izanen da gure ancientzat azkena -

~~Atan~~.

J. Haritschalhar - ek radioan emana

1813 – 1814.

– Intr. Nap. envahit l'Espagne.
Le 2 mai à Madrid –
Cf. poésie basque. (Triomphe)

– La guerre d'Espagne. Les 2 rivaux. Mina / Harispe –
Cf. poésie basque. à la gloire de Harispe –

Mais. 6 juin 1811. Behobie Urrugne. p 4 BMB –
8 octobre 1812. Sare. p 6 BMB.
16. février 1813. Urrugne. p. 7.

– L'invasion.
21 juin 1813. Vitoria.
28 juillet 1813 Sorauren.
octobre 1813 – Invasion du Pays basque
San Marcial et Vera.
Novembre 1813. Tout le Labourd

Indiscipline des troupes françaises
– pillages à Cambo. Itxassou. Halsou, Espelette, Cambo.

Cf. poésie basque